

Txama Integrazio Topagunea

TXAMA
Integrazio topagunea



KANALAK

Gure proiektua zabaltzeko (banatzeko eta komunikatzeko) erabiliko ditugun kanalak hauexek izango dira. Lehenik eta behin, gure internet webgunea edukiko dugu, non, topagunearen inguruko informazio guztia aurkitu daitekeen (kontaktua, zerbitzu eskaintza, merchandisinga, ordutegiak, langileen informazioa...). Informazioa zabaltzeko beste era bat kartelak izango dira. Hauek kaleetan zehar itsatsita egongo dira, adierazpen libreko guneetan. Horretarako, langileok kartelak diseinatu eta itsatsiko ditugu.

Udalak ere proiektua promozionatzea eta sustatzea ondo legoke, erakundearekin elkarlanean arituko baikara, eta, horrenbestez, *Kontzejupetik* udal aldizkarian gure proiektua azaltzea egoki deritzogu. XXI. mendean proiektu bat aurrera eramateko orduan sare sozialak izatea ezinbesteko deritzogu; horregatik, gure proiektua zabaltzeko kanalak izan daitezkeela uste dugu baita ere. Bertan, proiektua aurkeztu zein sustatzeko argazkiak argitaratuko ditugu, ordutegi eta zerbitzuen inguruan informazioa emateaz gain.

Azkenik, boluntarioak zein bezeroak egon daitezken leku potentzialetara joango ginateke, gure proiektuaren atak irekitzeko eta aditzera emateko. Hasteko, lehenago aipatu ditugun eta horiekin funtsezko elkarteak osatzeko aukera dagoen bestelako zerbitzuak, izan Cáritas, CEAR, Hotz Oñati edo herriko elikagai bankua. Horietara bezero bila joango ginateke jakina. Zerbitzu sozialekin ere hitz egin genezake integrazio beharrean dagoen jendeari gure proiektua erakusteko. Boluntarioak bilatzeko orduan, aipaturiko zerbitzuetako langileekin kontatu genezake eta, gainera, eskola, unibertsitate zein lantegitara gure proiektua aurkeztera joango gara.

Aipatutako kanalak kontuan izanik, gure proiektua herri mailan argi sustaturik geldituko litzatekeela uste dugu.

TXAMA
Integrazio topagunea

Lagun berriak egiteko eta herrian integrazteko Oñatiko topagune berria

DENOK BATERA LORTUKO DUGU

GUZTIONTZAT

Topagune honet, gizarte bazterketa pairatzen duten pertsonak herrian, eta, baita ere, herriarekin nazarean harremanak eta integrazteko abalbidetzen du.

EKINTZA ASKO

Berbaratzen diren, elkarren artean ekintza elkarrekin egiteko aukera izango dute

Oñati, Gipuzkoa 20960
Santa Marina plaza 4

BORONDATEA ONARTUKO DA

<https://txamaintegraziotopagunea/change.org>

ANIMA ZAITEZ!!!

www.txamaintegraziotopagunea.com
txamaintegraziotopagunea@gmail.com